

DOCTOR DESEO

MAKETOEN
* IRAULTZA *

MAKETOEN
* IRAULTZA *

Doctor Deseo taldearen (Bilbo, 1986) hamazazpigarren diskoa euskarra hutsean dator, "Maketoen iraultza". Batez ere, bilduma da. Hamahiru abestietatik bakarra da berria eta gainerakoak urteetan egindako lanek osatu dute euskarazko abestien bilduma, "Silencio en la sala" abestia kenduta, "18/98" ekimenerako argitaratutako diskoan kaleratu baitzen 2006an. 1995ean egin ziguten lehenbiziko ekarpena euskaraz, eta diskoz disko hamaika bultzada eman dizkiote euskarari. Konpromiso sendoa izan zen 2011ko abenduaren 3an Gasteizen eman zutenean osorik kontzertua euskaraz. Kilometroak 2016an, Bergaran, bigarren kontzertua euskara gordinean. Doctor Deseo taldearen koherentziaren barruan euskarak presentzia izan du eta adierazpen bidea ere da. "Maketoen

iraultza" diskoa ulertu behar da euskararen aldeko dinamika horretan. Euskal literaturaren klasikokoetara jo zen Lauaxetaren "Eta moxua eman atsekabez" abestiarekin. Xabier Leteren "Ni naiz" klasiko bezala har daiteke. Gero Edorta Jimenez, Unai Iturriaga eta Sonia Gonzalez izan dira gainerako testugileak. Marta Ortizekin elkarlan luzea birbildu du Francis Diezek testuak egitean disko berrienetan.

Doctor Deseo taldearen "Maketoen iraultza" abestia bizia da, ereserkiaren osagarriak ditu testu eta musikan. Elektronika eta gitarra eskutik oratuta doaz, bukaera harrigarria du, erritmikoa da eta dantza-arrasta egiteko balio du.



"Bere garaian iraina izan zena, harrotasun kantua bihurtu dugu "Maketoen iraultza" abestia. Gaur harrotasun gisa har dezakegu maketo izan ginengatik, maketo garenengatik eta iritsiko zaizkigun maketo berriengatik. Bai, gu iraultza bat izan ginen, dena aldatu genuen. Euskal nazionalismoa izan denaren oinarriko gauzak onerako eraldatu ditugu, kontzeptua eraldatu dugu. Abertzaletasun haren sostengu ziren "Aitaren etxea" eta "lege zaharra" kontzeptuen aurka jo genuen zuzenean. Eraldatu egin dugu, urbanizatu egin dugu. Euskal Herriko kultura Euskal Herrian egiten den guztia da, eta eboluzionatzen joan gara. Maketook "lege zaharraren" eta "aitaren etxearen" landa-mito zaharrak aldatu ditugu, hiritarren dinamismoagatik, desioaren beharragatik".

(Francis Diez)

MAKETOEN IRAULTZA

Iluntzero argia hiltzen den lekutik, paradisuatik, ihesean.

Lur aginduaren bila, ez iragan, ez abizen. Askok gelditu zen bide-ertzean.

Aitaren etxea utzi genuen desioaren kaleetan galtzeko, berriz jaiotzeko. Hemen dator...

Zuen lege zaharrari su emanez espaloian egingo dugun dantza, maketoen iraultza hemen dago.

Odolak baditu milaka mintzo, eta datorrena, ez da erreza izango...

Goazen bada denona den horren bila...! Festa has dadilla!

Arazoa eta konponbidea izan ginen eta izango gara, geroa orain da. Hemen dator...

Zuen lege zaharrari su emanez espaloian egingo dugun dantza, maketoen iraultza hemen dago.

"1968an munduan zehar altxatu zen olatu kontrakulturala inon baino hobeto surf egin zuen euskal identitateak eta bat-batean euskaldun izateak gazte, moderno eta aurrerakoia esan nahi zuen, askatasunaren alde egoteko euskalduna izatea bide segurua eta eraginkorra zen, eta laster, gitarra elektrikoa astintzea ere oso efektiboa izan zitekeen. Eta orduan maketoen mementoa heldu zen, sortzen ari zen euskal gizarte berrian, bertan lan, bizi eta desiratzen zuen jende guztia izan zitekeen eurek nahi zutena, eta askok euskalduna izatea aukeratu zuten, desiratu zuten: "ni naiz, ni ez naiz, nik ez dakit" (Francisek Leteren kantaren atarian esaten duen moduan), baina nahi dut, nahi dugu... eta ahal dugu!"

(Josu Larrinaga)

"Irteera bakarra, lehen egin zuten bezala, gure infernuak borrokarako indar bihurtzea da. Arazoa dena, Doctor Deseok esaten digun bezala, konponbidea izan daiteke, baldin eta geure burua sistema kaka baten naufragio gisa ikusten badugu, non geure burua salbatzeko taula ezin den bakardadearena izan, baizik eta enpatiarena, zaintzarena, maitasunarena, zeina ez baita bestea, beste legitimoztat onartzea baizik. Maketoen iraultza beren gain hartzen dutenena da, ez etxea maldan gora eramatea, baizik eta elkarrekin eraikitzea, lagunduz, lagunduta, gu zainduz, espaloietan dantzan eginez, kalean, esanez, hemen gaude ... 'duintasunez, inork ez digulako irabazten'".

(Igor Ahedo)

Francis: ahotsa
Toro: gitarrak
Joxi: baxua eta koruak
Raul: teklatuak
Joe: saxoa
Txanpi: bateria

ritxi aizpuru + francis diez
(2019ko abenduaren 2a)

www.doctordeseo.com



Management: 659 975 820

baga **biga**
MUSIKA IDEIAK

Tel: 659 975 820 - 618 072 026 / 221 P.K. 48100 Mungia (Bizkaia)
www.baga-biga.es / info@baga-biga.es